



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2024



Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

✉ kluster@soziolingvistika.eus

➦ www.soziolingvistika.eus

f sklusterra

🐦 @sklusterra



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eginez eta bertako zein nazioarteko soziolingvistika ezagutza kudeatuz egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, metodo zientifikoa baliatuz jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin elkarlanean. Soziolingvistika Klusterrak euskararen hiztun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolingvistikoa gizartean ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa du.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
(CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da.
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
URTEKO TXOSTENA 2024**

BAZKIDEAK



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

OHOREZKO BAZKIDEA:

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artz Euskara Zerbitzua
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebete elkarte
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkarte
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak
Europar Kooperatiba Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Hezten Aisialdi Euskaltzalea
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea,
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E.
Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide
Elkarte (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Taupa Mugimendua
- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea
(UEMA)
- Zumaiaiko Udala



NORBANAKO BAZKIDEAK:
64 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2024 AURKIBIDEA

1	2024ari buruz	6 or.
2	Nortasuna eta egitura	7 or.
	2.1 Erabaki-guneak	7 or.
	2.2 Barne-proiektuak	9 or.
3	PROIEKTUAK	11 or.
	3.1 Aldahitz Ikerketa	12 or.
	3.2 Euskara Kirolkide	13 or.
	3.3 Hirigintzaren eragina euskararen kale-erabileran	14 or.
	3.4 Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan	15 or.
	3.5 Itzulinguru.....	16 or.
	3.6 Jendaurrean Erabili	17 or.
	3.7 Bilboko gurasoen hizkuntza-bizipenak, -praktikak eta harreman-sareak	18 or.
	3.8 Soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko proposamena	19 or.
	3.9 Berba-lapiko	20 or.
	3.10 Eskoletako hizkuntzen mapak	21 or.
	3.11 Hezkuntza komunitatearen azterketa soziolinguistikoa (HEKOA): Zizur Nagusia	21 or.
	3.12 Euskararen Adierazle Sistema (EAS)	22 or.
	3.13 Hizkuntzen erabileraren neurketen datu-basea	23 or.
	3.14 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa: Ynys Môn (Gales)	24 or.
	3.15 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa herrietan	25 or.
	3.16 Euskal soziolinguistika jardunaldia	26 or.
	3.17 Txillardegi-Hausnartu soziolinguistika sariak	27 or.
	3.18 Bat soziolinguistika aldizkaria	28 or.
	3.19 Soziolinguistika Albistaria	29 or.
4	Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak	30 or.
	4.1 Aurkezpenak, hitzaldiak, formakuntzak, komunikazioak eta saio publikoak	30 or.
	4.2 Harremanak, bilerak eta mintegiak	31 or.
	4.3 Kidezkak eta parte hartzeak	32 or.
	4.4 Beste harremanak	32 or.
5	Balantze ekonomikoaren laburpena.....	34 or.

1

2024ari buruz

Soziolinguistika Klusterrak hogeitun urte bete ditu 2024an. Euskararen biziberritzeari ekarpena egiteko asmoz eratutako ikergune honek bereizgarri izan ditu antolaketa- eta funtzionamendu-eredu propioa, lankidetzaren aldeko apustua eta ezagutza zientifiko sendoa oinarritutako jarduna. Sorreran, unibertsitate ikerlariak, administrazio publikoan lanean ari ziren euskara teknikariak eta euskararen plangintzan diharduten aholkularitzak bildu ziren, besteak beste, euskararen biziberritzerako ezinbestekoa zen soziolinguistika ezagutza sakona sustatzeko.

XX. mendearen amaieran Erramun Baxok soziolinguistak egindako proposamenetatik eta Bat Soziolinguistika Aldizkariaren Erredakzio Batzordearen ekimenetik abiatuta, SEI Elkartea sortu zen eta Soziolinguistikaren inguruko Simposiuma antolatu zen 2000. urtean. Bide horretatik, eratu zen 2004an Klusterra, ikerketa esparruan identifikatutako hutsuneak betetzeko premiaz jabeturik. Hasieratik bilatu da unibertsitateko ikerlarien eta euskararen aldeko gizarte-eragileen arteko elkarlana sustatzea, ezagutzan oinarritutako hizkuntza-politikak eta esku-hartze estrategiak garatzeko.

Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herri osoari begirako ikuspegia du eta lurralde osoan diharduten eragileekin aritzen da lankidetzan. Ikerlariaren jarduna irizpide zientifikoak jarraituz garatzen da, eta horrek autonomia eta zilegitasuna ematen dizkio beste eragileekiko. Lankidetzaren funtsezko balio gisa hartuta, ekimenen balio erantsia areagotzen da, eta gizartearekiko konpromiso irmoa erakusten da. : emaitzak gardentasunez partekatzen ditu eta gizarte bidezkoago baten aldeko jarrera aktiboa sustatzen du, genero berdintasuna, iraunkortasuna eta diskriminazioaren aurkako politikak praktikan jarritik.

Euskararen inguruko ezagutza soziolinguistikoa sortzeko eta kudeatzeko ga-

ratzen ditu proiektuak Soziolinguistika Klusterrak. Ezagutzaren kudeaketara espresuki zuzendutakoak dira horietako batzuk: Bat soziolinguistika aldizkaria, Soziolinguistika Albistaria, Euskal Soziolinguistika Jardunaldia edo Txillardegui-Hausnartu soziolinguistika sariak, esaterako. Ikerketara, garapenera eta berrikuntzara begirako proiektuei dagokienez, alde batetik, egoeraren azterketarako proiektuak daude. Esate baterako, Klean edo bestelako eremuetan egiten diren hizkuntzen erabilerean neurketak, HEKOA ikerketa edo hirigintzaren bilakaerak euskararen erabilera-ekin duen lotura aztertzea. Beste alde batetik, esku hartzeko metodologiaren garapenerako proiektuak daude: Aldahitz, Berba-lapiko, Jendaurrean Erabili, Itzulingu edo Euskara Kirolkide, adibidez.

2024 Urteko Txosten honetan, Klusterraren ezaugarri eta antolakuntzari buruzko informazioaz gain tamaina, aurrekontu, hedadura eta iraupen oso desberdineko ia 20 proiektutan egindakoa laburtzen da.

Soziolinguistika Klusterraren hurrengo erronkak 2025eko hausnarketa estrategikoan zehaztuko badira ere, zenbait arlo lantzen jarraitzea funtsezkoa izango da: erakundea sendotzea, harreman sarea handitzea eta finantzazio estrukturala lortzea, esaterako. Halaber, euskararen biziberritzearen beharrekin letroratzea eta hiztun komunitatearen lehenetsunak identifikatzeko, garrantzitsua izango da mahai-gainean dagoen Batzorde Zientifikoaren sortzeko asmoa gauzatzea. Nazioarte mailan, azken urteetan NPLDren baitan eta bestelako bideetatik egindako lanari segida emanez, sareak indartzen eta proiektuetan parte hartzen jarraituko dugu. Erronka horiei guztiei eta gehiagori erantzutea funtsezkoa izango da datozen urteetan Klusterrarentzat. Sorrerako filosofiari jarraituz, baina ingurune aldakorrera egokitzen asmatuz, euskararen minorizazio egoera eraldatzeko behar den ezagutza sortzen duen askoren arteko elkarlan-tresna izateko bokazioari eusten diogu.

Jasone Mendizabal.

Soziolinguistika Klusterraren lehendakaria

2

NORTASUNA ETA EGITURA

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak euskara biziberritzeko erreferentziatzko ikergune izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz eta berrikuntza bultzatuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** metodo zientifikoan oinarrituta zorrotasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.
- **Elkarlana:** osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizartearekiko ardura:** euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatu du bestelako gaietan ere gizarte berdinzaleago baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurralde guztietan jarduteko bokoia du.



2.1 ERABAKI-GUNEAK

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu. 2024ko ekainaren 20an Andoainen egin zen Soziolinguistika Klusterraren Ohiko Batzar Orokorra.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia.

2024an ondorengoek osatu dute Zuzendaritza Batzordea:

- Ruben Beitia (Emun Kooperatiba Elkartea)
- Maite Asensio (Hezten)
- Leire Solozabal (Artez Euskara Zerbitzua)
- Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterra)
- Helene Armentia (Elhuyar Aholkularitza) - Diruzaina
- Eneritz Garro (HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea)
- Josune Etxaniz (Eusko Ikaskuntza)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) -Idazkaria
- Jasone Mendizabal (Taupa Mugimendua) - Lehendakaria
- Mertxe Mugika eta Maialen Begiristain (AEK)
- Miren Segurola (UEMA)
- Jon Zarate (Euskal Herriko Unibertsitatea)

BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2024an 12 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Arantza Egiguren Aizpiolea
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Paula Laita Pallares
- Imanol Larrea Mendizabal – Zuzendaria
- Haizea Muñoa Urdanpilleta (Praktikaria eta bekaduna)
- Iradi Sagredo Tolosa
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain



2.2 BARNE-PROIEKTUAK

2020 urtean onartutako 2020-2024 egitasmo estrategikoaren baitan, hainbat proiektu estrategiko garatzea aurreikusi zen. 2024an ondorengoei heldu zaie:

KOMUNIKAZIO PLANA

Proiektuen komunikazio-lana sistematizatu eta hobetzea bilatzen da, besteak beste, argitalpen irizpideak berrikusiz. Nazioarteko ikergune eta eragileekin elkarrekin areagotzeko bideak zabaldu nahi dira eta Euskal Herri osoan presentzia eta eragina bermatzeko bideak jarri.

NAZIOARTEKOTZEA

Nazioarteko harreman-sareak eraikitzen lan egin da, batez ere Europako hizkuntza gutxituetako komunitateetako eragileekin. NPLD (Hizkuntza Aniztasuna Bultzatzeko Sarea) sarean parte hartu eta UniNet ikertzaileen azpi-sarearen lana bultzatu da. Euskal soziolinguistika nazioartean zabaltzeko ekimenak, Europako erakundeen finantziak bilatzekoak eta beste eragileekin proiektuak elkarlanean garatzeko aukerak lantzeko urratsak eman dira.

BIKAINASUN PLANA

Pertsonen garapenerako ekimenak egin dira arrisku psikosozialen inguruan. Diagnostikoa osatu da eta ekintza plana definitu da. Gainera, arlo horretan esku hartzeko, Mondragon Unibertsitatearekin *Bateratzen* metodologia aplikatu da.

GENERO BERDINTASUNENKO PLANA

Erakundearen generoaren araberako diskriminazioa saihesteko eta berdintasuna handitzeko planerako diagnostikoa eta diseinua egin dira.



Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten egitasmoak

3

PROIEKTUAK

1	Aldahitz Ikerketa.....	12 or.
2	Euskara Kirolkide	13 or.
3	Hirigintzaren eragina euskararen kale-erabileran	14 or.
4	Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan.....	15 or.
5	Itzulunguru	16 or.
6	Jendaurrean Erabili.....	17 or.
7	Bilboko gurasoen hizkuntza-bizipenak, -praktikak eta harreman-sareak	18 or.
8	Soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko proposamena	19 or.
9	Berba-lapiko	20 or.
10	Eskoletako hizkuntzen mapak.....	21 or.
11	Hezkuntza komunitatearen azterketa soziolinguistikoa (HEKOA): Zizur Nagusia	21 or.
12	Euskararen Adierazle Sistema (EAS).....	22 or.
13	Hizkuntzen erabileraren neurketen datu-basea.....	23 or.
14	Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa: Ynys Môn (Gales).....	24 or.
15	Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa herrietan	25 or.
16	Euskal soziolinguistika jardunaldia	26 or.
17	Txillardegi-Hausnartu soziolinguistika sariak	27 or.
18	Bat soziolinguistika aldizkaria	28 or.
19	Soziolinguistika Albistaria	29 or.

3.1

Hausnarketa teorikoa, ikerketa eta aplikazio praktikoa uztertuz hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen lan-ildoak.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola
(Soziolinguistika Klusterra)

Bulegoko langileak |

Iradi Sagredo Tolosa

(Soziolinguistika Klusterra),

Paula Laita Pallares

(Soziolinguistika Klusterra),

Belen Uranga Arakistain

(Soziolinguistika Klusterra),

Pablo Suberbiola Unanue

(Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak | Estiñe Astorkia

Kortabitarte (Artez), Nekane

Jauregi Arruabarrena eta

Joxean Amundarain Iturrioz

(GFA), Nerea Ibarluzea Eguren

eta Maialen Begiristain Grado

(Ahize-AEK), Paula Kasares

Corrales eta Maite Mangado

Fernandez (Euskarabidea), Sonia

Isasi Zubieta (Eusko Jaurlaritza),

Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar

aholkularitza), Xabi Bosch

Urdanibia (Emun), Xuban Zubiria

Elexpe (Topagunea - Taupa)

Uler-saioak aditu-taldea |

Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar

aholkularitza), Raul Perez

Martinez (Ahize-AEK), Xabi

Bosch Urdanibia (Emun)

Aholkulariak | Pello Jauregi

Etzaniz (EHU)

Aldahitz ikerketa

Bederatzi gunetan *Uler-saioak* metodologiaren inguruko esperientziak garatu dira eta ikerketarako datuak jaso. Bestetik, formazio ziklo berri bat egin da, *trebatzaileen* sarea handituz. Horrekin batera, metodologia garatzen eta hobetzen jarraitzeko *aditu-taldearen* jarduera egonkortu eta sendotu da.

Hizkuntza ohituren aldaketarako *sistema integralaren* diseinu eta garapenerako lehen urratsa eman da, Aldahitzeko metodologiaren arteko lotura eta jarraipena ikertuz. Lehen proba pilotuak ere egin dira.

Euskarara hurbildu lan ildoak abiatu da, uler-saioak metodologian aritutako herritarren iritziak eta bizipenak ikertzeko.

Bestalde, *Gipuzkoa Arigune* egitasmoaren garapenean parte hartu da, Aldahitzeko metodologiaren erabilera koordinatuz.



➔ <https://soziolinguistika.eus/aldahitz>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Etorkizuna Eraikiz
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea

3.2

Kirol taldeetan, haurren eta gazteen aisialdian eta sozializazioan, euskaraz funtzionatzen duen esparru bat eratzekeo proiektua.

Euskara Kirolkide

2020tik 2025era arteko proiektua da, aurrekaria gisa "D ereduko kirola" proiektua duena.

Hiru kirol klubekin saioak egin dira kirolari gazteen artean euskararen erabilera nola sustatu probatzeko: Bilboko Unamuno saskibaloia taldea, Bilbao Universitario Rugby kluba eta Berriozarko Kirol Elkarteak. Seina saio antolatuta dira klub bakoitzean entrenamenduetan, kirolariek eta entrenatzaileekin.

Webgunearen gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak landu eta argitaratu dira.


Gainera, Frisiako hainbat eragilerek bilerak izan dira urte guztian Euskal Herriko esperientzia han nola aplikatu daitezkeen zehazteko.

Bulegoko langileak |

- Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)
- Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak |

- Aritz Olagoi (Kirolean)
- Garat Gaztelu (AEK)
- Jon Ander Llamosas (Artez)
- Eneko Irastorza (Kukulaisi)



➔ <https://euskarakirolkide.eus>

Babesle-laguntzaileak:

- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.3

Herri ertainetako hirigintza-politiken eta kaleko euskararen erabileraren arteko harremana aztertzeke metodologia.

Zuzendaria | Koldo Telleria Andueza (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Bulegoko langileak |

Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)
Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak | Koldo Telleria

Andueza, Irati Otamendi Irizar, Ainhoa Guerras Alfonso eta Oihana Santolaria del Campo (Botoi ikerketa taldea - UPV/EHU)

Hirigintzaren eragina euskararen kale-erabileran

80. hamarkadatik egiten dira kaleetako neurketak. Hiru hamarkada horietan gure kaleak eta orokorrean espazioak asko aldatu dira. Lurraldea antolatzeke ezarri den hiri ereduak eragina izan du, beste faktore globalen artean, gure eguneroko bizitzan, gure harremanean eta hizkuntza ohituretan. Erabileraren kale-neurketen emaitzak interpretatzeko hirigintzari lotutako faktoreetan sakontzeke beharretik sortu zen proiektu hau.

Herri ertainetako hirigintzaren bilakaera eta euskararen erabileraren arteko loturak aztertzeke metodologia sortu da 2024an Zornotzan eta Zarrutzen egindako azterketen bidez. Gainera, metodologia beraren bidez Gernika, Hernani eta Tolosa ere aztertzen hasi dira. GIS bisualizaziorako tresnak baliatu dira azterketa egiteke, besteak beste. Aztertutako herrietako auzoz auzoko errealitatea sakon ezagutzeko aukera sortu nahi da, guneen arteko alderaketak egin ahal izateke.



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.4

Gipuzkoan etorkin latinoen gizarteratzean gaztelaniaren eta euskararen presentzia, funtzioa eta balioa aztertzeko ikerketa.

Bulegoko langileak |

Belen Uranga Arakistain
(Soziolinguistika Klusterra)
Asier Basurto Arruti
(Soziolinguistika Klusterra)

Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan

Immigrazioaren inguruan egindako ikerketei jarraiki, etorkin latinoen integrazio soziolinguistikoa aztertu da iritsierako integrazioan, laboralean, sozialean eta identitario-kulturalean.

Integrazio horretan eragin handia du etorkinek xede-gizarteko hizkuntzak ezagutzeak. Gipuzkoako etorkin latinoak biztanleria osoaren % 6a dira, eta haien presentzia hazi egingo dela diote aurreikuspenek. Gipuzkoan hizkuntza hegemonikoa den gaztelania ezagutzen dute; aldiz, euskara arrotza zaie eta, ofiziala izan arren, haren presentzia soziala, ekonomikoa eta politikoa txikiagoa da.

Ikerketa kualitatibo honetan elkarrizketa sakonen bitartez jaso da informazioa. Emaitzak garrantzitsuak dira hizkuntza-berdintasunaren ikuspegitik, integrazio soziolinguistikoa euskararen funtzioa lantzeko eta auziari erantzun egokia emateko.



Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.5

Itzultzaile neuronalen eragina euskararen erabileran, hizkuntza jarduera arautuetan.

Zuzendaria | Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Bulegoko langilea | Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

Garapen Taldea | Eduardo Apodaka (EHU), Asier Amezagaga (EHU), Igor Astibia (Hekimen), Maddi Etxebarria (Elhuyar), Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra), Natalia Elvira (Osakidetza), Aitor Ogiza (AEK), Beñat Erezuma (Berritzeguneak)
Esku hartzeetako partaideak | Osakidetza, Argia, Cikautxo, UPV-EHU, Enpresabidea, AEK, Euskalit, Gipuzkoako Foru Aldundia, Irutxuloko Hitza, Laboral Kutxa, Lizardi BHI, Mondragon Unibertsitatea, Orioko Udala, Unamuno BHI, Uribe-Kosta BHI, Vitoria-Gasteizko Udala

Itzulinguru

2023 eta 2024 urteen artean 7 gizarte sektoretako (administrazioa, osasungintza, bigarren hezkuntza, unibertsitateak, euskaltegiak, enpresak, hedabideak) 25 gunetan aztertu da itzultzaile neuronalaren erabiltzeko modua. Gune horietako bakoitzaren baldintzei egokituta esku hartze esperimental bana jarri da martxan epe batez, itzultzaile neuronalaren erabiltzeko modu desberdinak probatuz eta horren ondorioak aztertuz. Itzultzaile neuronalaren erabileraren inpaktuak behatu dira, erakundearen funtzionamenduari dagokionez, hizkuntza-kalitateari dagokionez eta euskararen erabilerari dagokionez. Prozesua eta ondorioak txosten batean jaso dira. Uda ikastaro bat egin da, proiektuaren emaitzak aurkezteko eta hizkuntza teknologien eragin soziolinguistikoen gaian sakontzeko. Hainbat artikulatu zientifiko eta aurkezpen egin dira zabalpen akademikoari begira.



➔ <https://soziolinguistika.eus/itzulinguru>

Babesle-laguntzaileak:

- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.6

Erakundeen komunikazioan euskararen erabilera eroso errazteko praktika komunitatea.

Bulegoko langilea | Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

Gida sortzeko lan-taldea |

- Maddi Etxebarria (Elhuyar aholkularitza)
- Oihan Zubizarreta (Emun kooperatiba)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)
- Irati Antia (AZK komunikazioa)
- Malen Illarramendi (AZK komunikazioa)

Praktika Komunitatea |

- AEK
- Donostia Zinemaldia
- Elhuyar
- Emun
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Eusko Legebiltzarra
- Getxoko Udala
- Guggenheim Bilbao Museoa
- Mondragon Unibertsitatea
- Mutualia
- Sakanako Mankomunitatea

Jendaurrean Erabili

2015ean abiatutako ibilbideari amaiera eman zaio 2024an. Denetarik erakundeek osatutako praktika komunitateak azken formazio saioak jaso ditu (kanal digitalei buruzkoa eta lidergo eraldatzaile feministari buruzkoa). Horrez gain, *jendaurrean.eus* erakundeek euskaraz komunikatzeko gida sortzeko prozesu kolektiboa aurrera eraman da: gidaren ezaugarriak adostu, edukiak sortu eta webgunearen inplementazio teknikoa gauzatu da.

Azaroan jendaurrean.eus gida aurkezteko ekitaldia egin da eta zabalpen publikoari ekin zaio. Urteetako ibilbidean proiektuan pilatutako ikasgaiak, ideiak eta erreferentziak modu ordenatuan publikoki eskuragarri eskaintzen dira Gidan.



➔ <https://jendaurrean.eus>

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.7

Bilboko gurasoek euskararekin dituzten bizipenak eta eguneroko harreman-sareak ikertu dira erabilera areagotzeko dinamika eraginkorren bila.

Zuzendaria | Jaime Altuna Ramirez (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Bulegoko langilea | Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterra)

Partaidea | Josu Ozaita Azpiroz (Antropologia ikerlaria)

Bilboko gurasoen hizkuntza-bizipenak, -praktikak eta harreman-sareak

Haur txikiak dituzten Deustuko eta Alde Zaharreko gurasoen analisi etnografikoa egin da, hiriko gurasoen errealitate soziolinguistiko orokorra hurbildu ahal izateko. Ikerketarako metodologia kualitatiboak baliatu dira, hala nola behaketak, norbanakoen elkarrizketak eta talde-elkarrizketak.

2024an euskararen erabilera areagotzeko interbentzio eraginkorren ga-koak bilatzeko fasea egin da; gurasoen arteko euskarazko harreman sareak sortzeko (edo indartzeko) jarduerak landu dira.

Jardueretan hiztunak elkarlanean jarri ondoren, euskarari atxikitako proposamenak zein aurreikuspenak irudikatu dira. Zehazki, Gau Beltzaren inguruko erritu eta ospakizunekin dinamika parte hartzaileak landu dira.



Babesle-laguntzaileak:

- Bilboko Udala – Euskara Zerbitzua
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.8

Hezkuntza sisteman soziolinguistika txertatzeko oinarriak proposatzeko eta programa diseinatzeko egitasmoa.

Bulegoko langileak |

Paula Laita (Soziolinguistika Klusterra)

Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

Aholkularitza iraunkorra |

Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitatea - HUHEZI)

Jarraipena |

- Alberto Telleria (Euskara Zerbitzua)
- Joseba Ibarretxe (Berritzegune Nagusia)
- Guruzne Arregi (Berritzegune Nagusia)



Soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko proposamena

Eleaniztasun testuinguruan, egoera soziolinguistiko konplexua duen herrian, euskal hiztun izateko motibazioa kalitatez lantzea zutabe garrantzitsua da, euskararen biziberritzea etorkizunerako proiektu gisa partekatzen badugu. Arlo soziolinguistikoa lantzeko saioak tokian tokikoak, barreiatuak eta sistematizatu gabeak izan dira orain arte Hezkuntza sistemaren baitan. Premiazkoa da soziolinguistika era sistematikoan lantzea.

Hausnartu eta adostu behar da ikasleen heziketa soziolinguistikoa nola egin, zein helburu ezarri, zein gaitasun eta eduki erdietsi behar dituzten, horiek nola mailakatuko diren ikasmaila guztietan. Era berean, programa soziolinguistikoak ikastetxeen egoera eta baldintza soziolinguistiko desberdinetara egokitzeko moduak eskaini behar ditu bere baitan.

Ildo horretan, 2024an, ardatz, helburu, gaitasun eta edukiak adostu dira Oinarriak dokumentuan. Horra iristeko, hainbat urrats eman dira: Hezkuntza legea eta dekretuaren azterketa, bibliografiaren azterketa, praktika onen identifikazioa, adituekin elkarrizketak, galdetegiak, kontraste mintegiak... .



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila

3.9

*Garapen metodologikoa
testuinguru erdaldunetako
ikasleen euskarazko
ahozko hizkuntzan
aurrera egiteko.*

Zuzendaria | Agurtzane
Azpeitia Eizagirre (HUHEZI)

Bulegoko langileak |

- Olatz Bengoetxea Manterola (Soziolinguistika Klusterra)
- Paula Laita Pallares (Soziolinguistika Klusterra)
- Haizea Muñoa Urdanpilleta (Soziolinguistika Klusterra)
- Isabel Godinez Hidalgo (Soziolinguistika Klusterra)
- Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak |

- Berritzegune Nagusiko Aholkulariak (Hezkuntza Saila)
- EAEko 39 ikastetxe
- EHUKo ELEBILAB ikertaldeko kideak: Leire Diaz de Gereñu



Berba-lapiko

Berba-lapiko ikerketa-proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabilera eta kompetentzia sakontzeko proposamena da, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatzen diena. 2017-2018 ikasturtean jarri zen abian bi ikastetxetan, Lehen Hezkuntzako etapan; eta prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu da euskararen ahozko kompetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, baina, batik bat metodologia berriztatzen eta ikasleen garapen adierazleak identifikatzen.

2024n, alde batetik, EAEn antzeko testuinguruan dauden 39 ikastetxe ari dira Berba-lapiko proiektuan parte hartzen. Horretarako, Hezkuntza saileko Berritzegune Nagusiko Aholkulariekin elkarlanean 245 irakasleei prestakuntza eta gertuko jarraipena eskaini zaie.

Beste alde batetik, bigarren urtez Hizkuntza Errutina metodologia baliatzen duten taldeen bilakaera aztertzeko ikerketarako datuak jaso dira, oraingoan LH2n. Lau urteko ikerketa longitudinala 3 ikastetxetan egiten ari da.

Azkenik, Berba-lapiko metodologia Moodle plataformaren bidez eskaintzeko ikastaroa sortzeko prozesuan urratsak eman dira: lantaldea finkatu da eta ikastaroaren hezurdura zein edukiak landu ditu.



➔ <https://soziolinguistika.eus/berba-lapiko>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza Saila



3.10

Eskolako hizkuntza-aniztasunaren gainean irakasleen eta ikasleen jarrerak aztertzeo ikerketa.

Bulegoko langileak |

- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)
- Paula Laita (Soziolinguistika Klusterra)

Partaidea |

Gorane Ayesta Maidagan
(Garabide Elkartea)

Eskoletako hizkuntzen mapak

Hizkuntza-aniztasunaren eta immigrazioaren ikerketa-ildoari jarraiki, zenbait eskoletako hizkuntza-aniztasunaren gaineko jarreraren inguruko diagnosis egin da. Araiako, Galdakaoko eta Bilboko 3 hezkuntza-komunitate hizkuntza-aniztasunean formatzea eta aktibatzea bilatu da, arreta jarriz herri indigenei eta hizkuntza gutxituei buruzko kontzientzia kritikoan; elkarrekin lantzeko giza eskubideen, generoaren eta ingurumenaren ikuspegiak ere.

Ikastetxeetan eta euskal gizartearen dauden hizkuntzei eta kulturei erreparratuz, inkestak, eztabaida-taldeak eta elkarrizketa sakonak baliatu dira, irakasleen, irakasleen, eta zuzendaritzaren iritziak jasotzeko.

Aztertu diren gaiak honako hauek izan dira: norberaren hizkuntza-biografia eta hizkuntza-aniztasuna munduan, Euskal Herrian, udalerrian eta eskolan. Garabide elkartea ari da emaitza baliatzen, formazio- eta aktibazio-egitasmoak garatzeko ikastetxe horietan.

Babesle-laguntzailea:

- Eusko Jaurlaritza – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia



3.11

D ereduko ikasleen euskara erabilera eta ERA.eus plataformaren erabilera aztertzeo proiektua.

Bulegoko langileak |

- Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)
- Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra)

Hezkuntza komunitatearen azterketa soziolinguistikoa (HEKOA): Zizur Nagusia

Zizur Nagusiko D ereduko LH4ko eta DBH2ko ikasleek galdetegia erantzun dute lehen hizkuntza, erraztasun linguistikoa, eskolako erabilera (irakasleekin eta ikaskideekin, gelan eta jolastokian), familiako euskararen eza-gutza eta erabilera eta eskolaz kanpoko ekintzetako hizkuntza erabilerari buruz. Gainera, lanketa kualitatiboa egin da ikasleekin bisita gidatuak eta autoerretatuaren teknikak erabiliz. LH4ko gurasoei era.eus webguneari buruzko galderak egin zaizkie inkesta bidez. Informazioa aztertu da, txostena osatu da eta aurkeztu egin da Udalean eta herritarren aurrean.

Babesle-laguntzaileak:

- Zizur Nagusiko Udala
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea



3.12

Euskaren eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri emango duen adierazle kuantitatiboen sorta, planifikatua eta sistematikoki eguneratua.

Bulegoko langilea |

Olatz Altuna Zumeta
(Soziolinguintika Klusterra)

Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

2013-2015 urteetan diseinatu eta 2015-2017 aldian garapen teknikoari ekin zitzaion. Soziolinguintika Klusterrak hastapenetik aholkularitza teknikoa dihardu.

2024an, jarraipen teknikoa egiteaz gain, adierazle berriak proposatu dira ingurune digitalean eta unibertsitateko eremuan; GET (Gaitasuna-Erabilera-Transmisioa) indizea sortu da; webgunean eskuratu daitezkeen datuekin Urtekaria eta esku-orria argitaratu dira; eta formazio-saioak eman zaizkie udaletako eta aholkularitza enpresetako teknikariei EAS ezagutarazteko.

➤ <https://www.euskadi.eus/eas/>
<https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema>
<https://www.mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html>

Proiektuaren sustatzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua
- Arabako Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua



3.13

Datuen antolaketa, kudeaketa eta azterketarako plataforma teknologikoa.

Hizkuntzen erabileraren neurketen datu-basea

Hizkuntzen Erabileraren Neurketen datu-base berria sortu da, teknologia aurreratuz baliatuz. Plataforma berriak datuen antolaketa hobea eta prozesaketa ahaltsuagoa du. Horrez gain, emaitzen bistaratzea grafikoa mapa eta taulen bidez egin daiteke eta datuen analisia aberasteko adimen artifiziala integratu da.

Hogeita hamar urte baino gehiago darama Soziolinguistika Klusterrak ahozko erabileraren datuak biltzen eta aztertzen. Nagusiki kaleko erabilerara behatu da, baina baita bestelakoak ere: ikastetxe eta unibertsitateak, kirol-jardueretako entrenamendu eta partidak, administrazio publikoko lantokiak, edota ospakizun eta jarduera bereziak (EuskarAbentura, Ikastolen aldeko festak, eta abar). Horrela, urte hauetan guztietan milaka datu jaso dira.

Informazioa jaso, ustiatu eta eskaintzeko tresna teknologikoki aurreratua eta eraginkorra sortzeko prozesuari amaiera eman zaio 2024an.

Zuzendaria | Olatz Altuna
(Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak |

- PKF Attest
- IZT kooperatiba



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua

3.14

Gales iparraldeko Ynys Môn irlan galesera kalean zenbat erabiltzen den behaketa bidez neurtzeko ikerketa.

Bulegoko langileak |

- Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)
- Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra)

Partaideak |

- Ifor Gruffydd (Bangorreko Unibertsitatea)
- Elen Hughes (Menter Môn)
- Catrin Jones (Menter Môn)

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa: Ynys Môn (Gales)

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa egiteko tresnak eta metodologia moldatu dira Galesen erabiltzeko. Galesera hitzunen proportzio desberdina duten bi herri aukeratu dira: Llangefni (5.499 biztanle, % 75,3 galeseradun) eta Porthaethwy (3.376 biztanle, % 51,95 galeseradun). Ibilbideak eta neurketa-egutegia zehaztu dira eta neurtzaileak trebatu dira. Landa lana egin, datuak aztertu, txostenean jaso eta emaitzak aurkeztu dira.



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusia
- Menter Môn

3.15

*Udalerrri zehatzetan
berariaz egiten diren
Hizkuntzen Erabileraren
kale-neurketak.*

Zuzendaria | Olatz Altuna
(Soziolinguistika Klusterra)

Bulegoko langileak |
Belen Uranga (Soziolinguistika
Klusterra)

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa herrietan

Udalerrri zehatzetako kaleetako hizkuntzen erabilera behaketa bidez neur-tzeko diseinatutako ikerketetan *Euskal Herriko Hizkuntzen erabileraren kale* neurketako metodologia bera erabiltzen da, herriaren ezaugarrietara ego-kituta.

Diseinuan ezarritako ordutegi eta ibilbideetan datuak jasotzen dira beha-keta bidez, diskrezioz eta hitzunei galdetu gabe. Euskara, gaztelania eta beste hizkuntzen erabilera orokorraren berri jasotzen da; baita hiztunen sexuaren eta adinaren datuak ere..

2024an hiru udalerritako neurketak egin dira: Amorebieta-Etxano, Berriz eta Lekeitio.

➤ <https://soziolinguistika.eus/herrietakoneurketak>

Babesle-laguntzaileak:

- Amorebieta-Etxanoko Udala
- Berrizeko Udala
- Lekeitioko Udala



3.16

Euskararen biziberritzearekin loturiko soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatze eta proposamen berriak egiteko urteroko zita.

Bulegoko langileak |

Asier Basurto Arruti
(Soziolinguistika Klusterra)
Belen Uranga Arakistain
(Soziolinguistika Klusterra)



Euskal Soziolinguistika Jardunaldia

Soziolinguistika Klusterrak 20 urte bete dituela aitzakiaz hartuta, euskal soziolinguistikaren ekosistemaren inguruan antolatu da 2024ko edizioa, Gasteizko Europa Jauregian. Jardunaldia euskararen biziberritze prozesua ezagutza soziolinguistikoz hornitzen duten pertsona eta eragileen topagunea izan zen: ikerlariak, teknikariak, arduradun politikoak, aktibistak, irakasleak... Askotariko gaiak eta formatuak nahastu ziren egun osoko egitarauan; hausnarketatik aurrera egiteko baliabideak ateratzea bilatuaz eta parte hartzaileen arteko elkarrekintzari garrantzia emanaz, beti ere.

Egitaraua:

- 9:00 DOKUMENTAZIO BANAKETA
9:15 IREKIERA
9:30 HITZALDIA: Hizkuntza gutxituaren inguruko diskurtso emergenteak Katalunian - Avel-li Flors (CUSC-Universitat de Barcelona)
10:30 PANELA: Hizkuntza gutxituaren inguruko diskurtso emergenteak Euskal Herrian
Diskurtsoak etnizitatek haratago - Onintza Legorburu (Emun)
Hizkuntzak bizindartzeaz, galtzeaz baino gehiago - Xan Aire (Plazara)
Inposizioak, pribilegioak, eta beste botere gatazka batzuk - Mikel P. Ansa (Berria)
11:30 ATSEDENALDIA
12:00 TAILERRAK
Soziolinguistika Hezkuntzan - Soziolinguistika Klusterra
Immigrazioa eta integrazio soziolinguistikoa - Soziolinguistika Klusterra
Kirol antolatuaaren lekua euskararen biziberritzean - Emun
14:00 BAZKARIA
15:00 HITZALDIA: Katalanaren soziolinguistikaren ekosistema - Avel-li Flors (CUSC-Universitat de Barcelona)
15:30 MAHAI-INGURUA: Euskal soziolinguistikaren ekosistema: non gaude eta nora goaz?
Manex Agirre (Gorbeialdeko Kuadrilla)
Maddi Etxebarria (Elhuyar)
Jon Mentxakatorre (Mondragon Unibertsitatea)
Moderatzailea: Rosa Ramos (Uharri)
16:45 HITZALDIA: Soziolinguistika Klusterretik hurrengo bi hamarkadei begira - Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra)

➤ <https://soziolinguistika.eus/jardunaldia>

Babesle-laguntzaileak:

- Vitoria-Gasteizko Udala - Euskara Zerbitzua
- Arabako Foru Aldundia - Euskara Zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



3.17

Euskal soziolinguistikaren eremuko hausnarketa eta ikerketa lanen lehiaketa.

Bulegoko langileak |

- Belen Uranga Arakistain (Soziolinguistika Klusterra)
- Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

Sustatzaileak |

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Soziolinguistika Klusterra



Txillardegí-Hausnartu soziolinguistika sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHU/UPVrekin elkarlana abiatzarekin batera, Txillardegí-Hausnartu Sariak izatera pasa ziren.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlariena lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

2024an hiru lan hauek izan dira sarituak:

- > **Lehen saria:** *Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentua atxikitzea eta pertsonen motibazioari eustea* (Arrate Illaro Etxebarria)
- > **Bigarren saria:** *Partaidetzazko lankidetzak hizkuntza-politiken eremuan: 2014-2023 artean Gipuzkoako kasua aztergai* (Eider Gurrutxaga Larrañaga)
- > **Hirugarren saria:** *Durangaldeko 16-18 urte bitarteko gazteen euskararen erabilera arau sozialen zokoan* (Oihane Alava Bernaola)

Sarien Banaketa Ekitaldia 2024ko abenduaren 10ean izan zen UPV/EHU-ren Bilboko Bizkaia Aretoan. Bideoetan jasota geratu dira bertan saridunek egindako lanen aurkezpenak. Horrez gain, Bat aldizkariaren 2025eko zenbaki batean argitaratuko dira saritutako hiru lanak eta lehiaketan parte hartu duten beste zenbait.



➔ <https://soziolinguistika.eus/txillardegí-hausnartu>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

3.18

Euskararen biziberritze-prozesuari begira, ikerketa soziolinguistikoa euskaraz hedatzeko helburua duen aldizkari zientifikoa.

Zuzendariak | Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)

Bulegoko langileak | Belen Uranga Arakistain
Isabel Godinez Hidalgo

Editorea | Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra)

Erredakzio Batzordeko kideak |

Nekane Arratibel (HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea), Beñat Garaio (Ikertzaile independentea), Eneko Gorri (Miarrizteko Herriko Etxea), Jone Miren Hernández (UPV-EHU), Lionel Joly (Euskaltzaindia), Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Iñaki Martínez de Luna (EHU/UPV), Inma Muñoz (Ikastolen Elkarte), Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna) EMERITOA

Bat soziolinguistika aldizkaria


Aldizkaria Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) sortu zuen 1990. urtean, Jose Luis Enparantza Txillardegiren inplikazio zuzenarekin. Publiko hartzailea euskal soziolinguistika esparruan lanean ari diren ikertzaileak, unibertsitateko irakasle eta ikasleak, eta euskara biziberritzeko prozesuan inplikata dauden agenteak dira. Horien artean, Herri Administrazioiko hizkuntza-politikako ardura publikoa dutenak eta teknikariak daude, hala nola, euskararen normalizazioan murgilduta dagoen gizarte osoa.

Urtero lau zenbaki argitaratzen dira, paperezko formatuan eta modu digitalean. Artikuluak zein aldizkari osoak webgunean daude eskuragarri doan, azken lau zenbakiak izan ezik (horiek ordainpean).

2024an argitaraturiko zenbakien gaiak honakoak izan dira:

- BAT 130 Hausnartu-Txillardegi Soziolinguistika Sariak
- BAT 131 Kontzientzia soziolinguistikoa hezkuntzan
- BAT 132 Hiriburuetako soziolinguistikaz
- BAT 133 Adimen artifiziala eta euskara

➔ <https://bat.soziolinguistika.eus/>



Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza- Hizkuntza politikarako Sailburuordetza



3.19

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.

Soziolinguistika Albistaria

Zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko tresnen bidez, soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jarduera zientifikoak, akademikoak eta sozialak jarraitzen ditu Soziolinguistika Klusterrak. Egun, 100 iturri baino gehiago baliatzen dira intereseko informazioa biltzeko.

Jasotako informazio hori Soziolinguistika albistariaren bidez helarazten diogu euskal soziolinguistika komunitateari. Funtsean, hitzorduez, irakur-gaiez, eragileez edo ideiez elikatzen dugu Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduen sarea.

Hain zuzen, hamabost egunean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 18 albiste inguruko bilduma zabaltzen dugu posta elektronikoz, sare sozialen bidez eta webguneko <http://soziolinguistika.eus/albistaria> atalean. Dagoeneko 178 zenbaki hedatu dira; 2024. urtean, zehazki, 157.etik 178.era.

Bulegoko langileak |

- Paula Laita Pallares (Soziolinguistika Klusterra)
- Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

Partaidea | Leire Muxika (Emun kooperatiba)

The screenshot shows the website's layout with a teal header. The main article is titled "Hizkuntzen erabilera neurtu dute Galeseko Ynys Môn uharterko kaleetan". It includes a photo of two people talking on a street. Below the article is a sidebar with a logo for "SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA" and a section titled "LAN ESKAINTZA: ikertzaile/teknikaria" which lists job requirements and contact information.

➔ <https://soziolinguistika.eus/albistaria>

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



4

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Elkarlana oinarri

4.1 AURKEZPENAK, HITZALDIAK, FORMAKUNTZAK, KOMUNIKAZIOAK ETA SAIO PUBLIKOAK

2024/02/08 - Andoain

IRALEko Soziolinguistika ikastaroko ikastarientzat Soziolinguistika Klusterraren jarduerari buruzko aurkezpena.

2024/03/20 - Leioa

Euskal Hedabideen Behatokiaren barne hausnarketa foroan parte hartzea.

2024/04/17 - Aretxabaleta

Arizmendi ikastolaren urteurrenaren harira antolatutako "Euskara: atzera ala aurrera goaz?" mahai-inguruan parte hartzea.

2024/05/17 - Lasarte-Oria

Udaltop topaketen baitan, bideo bidezko parte hartzea "Jatorrian gaztelania hizkuntza ofiziala duten etorkinen integrazio soziolinguistikoa Gipuzkoan" proiektuarekin lotuta.

2024/06/21 - Baiona

Euskaltzaindiak antolatutako *Euskararen biziberritzea Ipar Euskal Herrian* jardunaldian "Zer diote Ipar Euskal Herriko datu soziolinguistikoe?" mahai-inguruan bideratzaile.

2024/07/04 - Eibar

UEU-k antolatutako *Hezkuntza soziolinguistikoa: esperientzien partekatzea eta aurrera begirakoa* ikastaroen "Soziolinguistika Curriculumean txertatzeko oinarriak" aurkezpena.

2024/07/9-10 - Aberystwyth

Research methodologies and regional or minority language research konferentzian aurkezpena:

- "Analyzing new language practices in Basque from the perspective of the social value".

2024/07/18 - Bilbo

EHUren *Itzulpengintza eta teknologia: aurrera eskuz esku, aurrera aurrez aurre* uda ikastaroan "Itzulunguru proiektua: itzultzaile neuronalaren eragina hizkuntza-jarduera arautuetan" hitzaldia.

2024/09/20 - Online

Centre for Welsh Politics and Society-k antolatutako *Economy, language and the workplace: good practice from the Basque Country* mintegian "Aldahitz and the Eusle Methodology" komunikazioa.

2024/09/25 - Andoain

EHUko Soziologia eta Zientzia Politikoetako ikasle taldearekin aurkezpen saioa Soziolinguistika Klusterraren ezaugarrien eta jardueraren inguruan.

2024/09/30 - Andoain

Garabidek antolatutako *Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programako* ikasleei Soziolinguistika Klusterrak garatzen dituen proiektuei buruzko formakuntza saioa.

2024/09/30 - Dublin

Gaephobal eta Foras na Gaeilge erakundeek antolatutako *Language Planning Conference 2024* konferentzian "Measuring the language use through observation" hitzaldia.

2024/10/01 – Andoain

Ekuatore Ginean Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa egiteko prestakuntza saioa.

2024/10/17 – Palma

Universitat de les Illes Balears-ek antolatutako *International Symposium on Language Ideologies and Attitudes* simposiumean "Integración sociolingüística de la migración proveniente de países hispanohablantes de América en Gipuzkoa" komunikazioa.

2024/10/26 – Donostia

Etxepare Institutuak antolatzen duen *Atzerriko unibertsitatean euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza ikastaroan* "Zertan da euskalduntze prozesua? Euskararen bilakaera soziolinguistikoa" aurkezpen saioa.

2024/11/18 – Online

EHUko Euskal Ikasketetako ikasleei zuzendutako hitzaldia Soziolinguistika Klusterraren eta Berba-lapiko proiektuaren inguruan.

2024/11/26 – Pasaia

Pasaia Lezo Lizeoko Batxilergoko ikasleei hizkuntzen erabileraren neurketa egiteko formazio-saioa, ikerketa-tekniken zientzia irakasgaiaren baitan.

2024/11/28 – Atarrabia

Nafarroako udaletako eta Euskarabidea institutuko euskara teknikarientzat formazioa, soziolinguistikan egiten ari diren ikerketa aplikatu proiektuei buruzkoa.

2024/12/18 – Bilbo

Euskaltzaindia eta Sabino Arana Fundazioa Fundazioak antolatutako *Aurrera ala atzera goaz?* Gako berrien bila jardunaldian, mahai-inguruaren bideratzaile.

4.2 HARREMANAK, BILERAK ETA MINTEGIAK

2024/01/10 – Online

ARTEZ Euskara Zerbitzuari kirol partidatan hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko aholkularitza.

2024/01/19 – Online

Eskoziako University of Highlands and Islands unibertsitateko Conchúr Ó Giollagáin-ekin mintegia "The Gaelic Crisis in the Vernacular Community" liburuaren inguruan.

2024/02/15 – Andoain

Kanadako Budd Hall eta Darlene Clover, Komunitatean oinarritutako ikerketan adituekin bilera.

2024/02/20 – Andoain

Olatz Olasok (Emun) gidatuta "multizereginak eta proiektuen kudeaketa" formakuntza saioa.

2024/04/09 – Online

Quebec-eko TELUQ unibertsitateak Etxepare Instituturen Elbira Zipitria Katedrarekin lankidetzan antolatutako "Aménagement linguistique, accueil et immigration" topaketan "Researching Sociolinguistic Integration" aurkezpena.

2024/05/30 – Andoain

ECMI ikerguneko Maddi Dorronsorekin immigrazioa eta arnaguneeen gaineko saioa.

2024/05/31 – Online

Galeseko arnaguneeen inguruko Bro ikerketaren gaineko lan-saioa.

2024/06/07 – Andoain

Galesko laith aholkularitzarekin elkar ezagutzeko bilera.

2024/09/10 – Andoain

Galeseko ARFOR programaren bueltako ikerlari eta arduradun politikoeekin lan-saioa Soziolinguistika Klusterraren proiektuen inguruko.

2024/09/13 – Andoain

Ikaslar-en Bagoaz egitasmoaren gaineko aurkezpen-bilera.

2024/09/16 – Online

Frisiako Unibertsitateko Eabele Tjepkema ikerlarirarekin Berba-lapiko proiektuari buruzko bilera.

2024/10/04 – Online

Galeseko Gobernuako hizkuntza politikaren arduradunekin bilera soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko proiektuari buruz.

2024/10/04 – Andoain

GISLAN enpresaren eskutik datuen maparatzerako GIS teknologien gaineko formakuntza saioa.

2024/10/25 – Andoain

Yukatango maiekin ahozko hizkuntzarekin loturiko ikerketen inguruko lan-saioa.

Irlandako Foras na Gaeilge erakundearekin hizkuntzen erabileraren kale neurketak egiteko aukerari buruzko harremanak.

Frisiako Fryske Akademy eta Afûk erakundeekin harremanak Euskara Kirolkide proiektuaren parekoren bat beren lurraldean garatzeko aukeraren inguruan.



Galtzaundi Euskara Elkarteari aholkularitza Villabonan eta Tolosan hizkuntzen erabileraren kale-neurketa egiteko.

4.3 KIDETZAK ETA PARTE HARTZEAK

Europako NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sarearen kide eta Zuzendaritza Batzordeko partaide gisa.

- **2024/05/03 – Santiago Compostela.** Zuzendaritza batzordearen bileran eta erakundearen Batzar Orokorrean parte hartu.
- Urte osoan zehar UniNET ikerguneen sarean parte hartu.
- **2024/09/27 – Brusela.** Europako hizkuntzen egunaren harira antolatutako gosari-ekitaldian “Initiatives to activate the social use of regional and minority languages” hitzaldia.
- **2024/11/15-16 – Batzelona.** NPLDk Coppieters Fundazioarekin batera antolatutako *Digitalization, artificial intelligence and languages: overview and opportunities* campusaren baitan “Neural machine translation and the effects on language use” hitzaldia.

Badalab-en Gobernu Batzordean eta deliberazio foroan parte hartzea.

Inpakta aldizkariaren Kontseilu Errektorean parte hartzea.

2024/02/23 – Eibar

INDEUSen Batzar Orokorrean parte hartzea, lankidetzaren sareko erakunde kide bezala.

2024/11/08 – Bilbo

ELEN sarearen Batzar Orokorrean parte hartzea.

Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroan parte hartzea (E), Euskara eta Hizkuntza Aniztasuneko azpi-batzordean.

4.4 BESTE HARREMANAK

2024/11/28 – Zarautz

AEK lantzen ari den Korrikari buruzko dokumentalera-ko gidoia lantzeko foroan parte hartzea.

2024/05/08 – Iruñea

Hamaika Telebistaren *Geltokia* saioan parte hartzea.

2024/02/20 – Andoain

Euskaraldiaren komunikazio estrategiaren inguruko eztabaida taldean parte hartzea.


Lanartea elkartearen “Euskal Artisten Lan eta Bizi Baldintzak” inkestaren prestaketan aholkularitza.





BALANTZE EKONOMIKOAREN LABURPENA


Bazkide, lankide, finantzatzaile eta erabiltzaileekin gardentasunez jokatzeko dugun konpromisoari erantzunez 2024ko jarduera ekonomikoa laburtzen duten datu batzuk eskaintzen dira jarraian.



- Pertsonal Gastua
- Gastu Orokorrak
- Proiektutetako Kanpo Zerbitzuak

GASTUAK

904.471 €



- Fakturazioa
- Eusko Jaurlaritza (HPS eta Hezkuntza Saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Udalak
- Bazkideak
- Erakunde pribatuak

SARRERAK

906.602 €





**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2024

